



## PELLO JAUREGI

---

EKAINAK 19

### ***Gaurko gazteak, biharko gurasoak***

Lasarte-Orian egin berri dudan ikerketa (“Gazteak eta euskara Lasarte-Orian: 20 urteko bilakaera”) abiapuntu hartuta, familiak haurren eta gazteen euskalduntzean duen funtsezko eragina erakusten saiatuko naiz. Eskolaren eta familiaren datuak era kuantitatiboan erkatuko ditut bakoitzaren eraginaren nolabaiteko neurria emateko asmoz.

Bigarrenik, esku hartze ikuspegi bati helduko diot gurasoen euskarazko jokaera sendotzeko. Ikuspegi horri “prebentibo” esango diot, zeren, nahiz eta gurasoak izan xede, gazte-helduak hartuko baitut bitarteko. Izan ere, gazte garaian sortzen baitira bikoteak, gerora familiaren hazia izan daitezkeenak kasu askotan. Halako esku hartze baterako oinarriak azalduko ditut.